

Global express

Gaurkotasuna ikasgelan







Afganistan: terrorismoari aurre egiteko gerra ote da?



Etorkizuna zalantzarriagoa da eta mundua arrisku-tsuaga New Yorkeko Torre Bikien aurkako atentatuen ondotik eta, oraingoz, Afganistan jo puntuan jarri duen gerraren ondoren.

Global Express-en argitalpen honek aztertu du zer den hedabideak krisiari buruz esaten ari direna, atentatuei nahiz gerrari emandako erantzun politikoak, eta hiritar musulmanen aurka handitzen ari den xenofobia.


**Intermón
Oxfam**

-  Hedabideek tragediaren berri ematen dute
-  Denok ez gara pentsamolde berekoak
-  Musulmanak eta arabiarak susmopean
-  Seguritatearen izenean, askatasun zibilak kolokan
-  Glosategia
-  Gida didaktikoa

Hedabideek tragediaren berri ematen dute



Iragan irailaren 11n inork ere ezin zuen sinistu ikusten eta entzuten ari zena. Nork eraso egin ote zieziaiekeen Estatu Batuei? Lehenbiziko hegazkinak New Yorkeko Dorre Bikietako bat jo eta hamar minutura, ehunka milioi gizon-emakume telebistari itsatsiak zeuden, euren begirada txundituak baztertu ahal izan gabe, gertakariaren tamaina ikusita.

Harrez geroztik, komunikabideetan egunero ari zaizkigu terrorismoaren kontrako gerraren berri ematen. Gerraren leloa

“Askatasun iraunkorra” da eta, diotenez, helburua da mundua toki seguruagoa izatea. Kalkuluen arabera, 3.000 berriemaile inguru joan dira gatazka lekuraino. Hala eta guztiz ere, orain artean, kazetari horiek alde bateko ikuspegia agertu dute, gertakariaren berri ematerakoan. Izan ere, gerra egoera dago eta gatazkan nahasitako aldeek zentsura ezarri dute. Bada, horregatik, kazetariak ez dute jasotzerik izan iturri ez ofizialek esandakoa eta ez dute hurbiltzerik izan bonbardaketak jasan dituzten afganiarren bizimodura.

Denok ez gara pentsamolde berekoak



Atentatuaren gaitzespena ia erabatekoa izan den arren, mundu guztiak ez du ontzat jo Afganistanen aurkako gerra. Izan ere, Estatu Batuetan, erasoak gertatu eta egun gutxi batzuetara, zenbait irri eta telebista kate Lennon musikariarena bezalako Imagine kantuak hasi ziren zentsuratzen, eta, hainbat intelektual salatu zituzten gobernuaren jokabidea kritikatzegatik, esate baterako, Susan Sontag edo Noam Chomsky. Aldi berean, ordea, 150 unibertsitatek aldarrikatu zuten terrorismoari erantzun baketsua eman behar zaiola, eliza ezberdinek zentzutasunez jokatzeko eskaria egin zuten elkarrekin eta herrialde osoko ehun milaka gizon-emakumeren gutunek euren presidenteari eskatu zioten gerrarik ez deklaratzeko.

Latinoamerikan ere ahots ofizialekin bat ez datozen iritziak agertu ziren. "Gaur hasi den gerrak hilerriz beteko ditu munduko zoko-moko guztiak". Joao Pedro Stedilek idatzia da hori, Brasilgo Lur Gabeen Mugimenduko buruetako batek, alegia. Idazle aunitzek, -besteak beste, Carlos Fuentes mexikarrak eta Eduardo Galeano uruguaiarrak-, euren beldurra agertu zuten eraso militarrek ez ote zuten munduko geopolitika leherraraziko eta horrek ez ote zituen, berriz ere, Gerra Hotzaren mamu zaharrak biziberrituko. Honatx zer idatzi zioten Bakearen Nobel saria jasotako Mairead Corrigan Maguirek, Adolfo Pérez Esquivelek eta Rigoberta Menchú sari hori bera jaso berri duen NBEko Idazkari Nagusi Kofi Annani: "Eraso militar horren moral bikoitza errefusatzen dugu. Haiek diote ekintza humanitarioak direla, baina Afganistango milaka gizon, emakume eta haurren etxeak suntsitzen ari dira". Leo Gabriel Vienako Ludwig-Boltzmann Institutuko ikertzailea da Latinoamerikarako eta hauxe idatzi zuen: "...mendeku goseak sekulan ez dakar bakerik. Iparraren eta Ekialdearen nahiz Hegoaren arteko gatazkei erroitik heldu behar zaie, gatazka horiek edozein direlarik ere, -politikoak, sozialak, kulturalak-. Hori bide bakarra izanen baita egungo anabasa zuzentzeko, mundu osoan ordena bidezkoagoa ezartzeko, alegia."

Are gehiago, beste ahots batzuek adierazi dute atentatu horiek izan direla Estatu Batuek hartu duten ordaina, azken urteotan,

kanpoaldean eginiko politikarengatik. Alde horretatik, J.I. González Faus jesuitak, Angolako moja batek esandakoa aldatu zuen La Vanguardia egunkarira. Hona hemen: "zenbaitetan, Estatu Batuek amorrarazi naute; baina guk izugarri sufritu dugu, horregatik ez diot inori halakorik opa, ezta Estatu Batuei ere, gure kalbarioaren erruduna izan arren". John Galtung norvegiarra da, bake bideen ikertzailea eta hauxe ekarri du gogora: "Bigarren Mundu-Gerra bukatu zenez geroztik, Estatu Batuek 228 eskuartze militar egin dituzte NBEk agindurik eman gabe" eta hauxe erantsi du "CIAren laguntzaz, 7 milioi gizon, emakume eta haur hil dira, 1949 eta 1987 bitartean, 38 urtetan doi, alegia".

Gizon-emakume askok "gerrarik EZ" esan dute

Atentatuak gertatu eta hilabete bakar batean, bakearen aldeko mila elkarte inguru sortu ziren 60tik gora herrialdetan. Milioi bat pertsona baino gehiago indarkeria militarren aurka atera dira kaleetara 460 protesta ekitalditan (139 Estatu Batuetan) eta Europako hiriburu nagusietan ezin konta ahala protesta egin dira gerraren aurka. Honatx hizlari batek Madrilen emandako arazoia: "bonbardaketak ez dira bidezko defentsan eginak, bidegabeko mendekuan baizik". Protestarik jendetsuenak Italian gertatu dira, 250 mila lagun bakearen alde atera baitziren. Berlinen, 30 mila lagun inguru gerraren aurkako manifestazioan bildu ziren. "Bigarren Mundu-Gerra lazgarria izan zen eta lazgarrikeria horrek oso zuhurrak egin gaitu alemaniarrek", Hannes Wand andere doktoreak esan zuen hori. Manifestazio horiez guztiez gain, aipagarri ere badira Estatu Batuen aurka hainbat tokitan egin diren protestak: Pakistanen, Indonesian, Filipinetan, Malasian, Indian eta Ekialde Hurbilean.

Musulmanak susmonean

Musulmanak susmonean



"Herrialde arabiar eta musulman gehientsuenek irailaren 11ko erasoak gaitzetsi dituzte, baina herrialde horietako agintariek jakin badakite deus gutxi egin dezaketela euren herritarrek Estatu Batuen aurka duten amorrua baretzeko ". Reem Haddad jaunak idatzi zuen New Internationalist aldizkari entzutetsuan. Egia da musulman askok Estatu Batuak eta Mendebaldea jotzen dituztela euren anai-arreba palestinarren eta irakiarren egoeraren erantzuletzat, baina gehienak ez daude muturreko indarkeriaren alde. Hala eta guztiz ere, iraileko gertakariak muturreko jarrerak indartu dituzte, batez ere, George W. Bushen haxe esan ondotik: "bi bide dago: haien alde edo gure alde". Argi dago Bushen etsaitzat jo nahi izan dituela bere jarrerarekin bat ez datozenak, eta, horrek esan nahi du Estatu Batuen errepresalia eta mendeku ekintzen mendean egon daitezkeela.

Xenofobia gero eta handiagoa da

Yusuf Al-Qaradawi Jekoa Islamaren aditua da, izen handikoa. Haxe gogoratu du bere erlijioaz: "erlijio tolerantia da, estimu handian dauka giza espiritua eta pertsona errugabeen aurkako

erasoak bekatu larritzat jotzen ditu". Koranaren bertsetak horixe bera dakar: "gizakia hiltzen duen hura, salbu eta nahigabeko hilketa edo lur gaineko usteltzearengatik denean, gizadi osoaren hiltzailea ere bada, eta bizi bat, bakarra izanik ere, salbatzen duen hura, gizadi osoaren salbatzailea ere bada" (Al Ma'dah: 32)".

Hala eta guztiz ere, hiritar musulmanen aurkako mesfidantzak, susmoak eta erasoak ere ugaritu dira herrialde aunitzetan, Estatu Batuen aurkako erasoetatik aurrera. Bush Presidentea eta Blair Lehen Ministroa euren herrialdeetako islamdarren buruzagiekin elkarrizketatu ziren. Espainian, ordea, erakundeen aldetik ez da halakorik egin, ez da inolako keinurik egin islamdarrengana hurbiltzeko, eta, kontuan hartu behar da, gero eta gehiago bizi direla gure gizartean. Dena dela, deus gutxi balio du gobernuek arrazakeriaren aurkako aldarrikapena egiteak, hedabideek irailaren 11ko hondamendiaren erantzukizuna musulmanei leporatzen dieten bitartean. Benetako "bonbardaketa mediatikoa" da.

Islamari buruzko usteak eta estereotipoak:

Islamari buruzko usteak eta estereotipoak:



Musulmana ez den jende askok uste du arabiar guztiak musulmanak direla. Baina Egipto, Irak, edo Siria bezalako herrialde arabiarretan, badira beste talde erlijioso batzuk. Palestinarren %15, adibidez, kristauak dira. Eta Iran, Pakistan, Bangladesh, Malasia eta Indonesia bezalako herrialde ez arabiarretan herritar gehienak musulmanak dira, baita Sahara azpiko herrialde batzuetan ere.



Musulmanak ez direnentzako, kultura islamdarra aldaezina da, monolitikoa eta aniztasunik gabea. Mundu islamdarrean, ordea, zenbait kontzepturi buruzko eztabaida gertatzen ari da: giza eskubideak, askatasun zibilak eta beste sinismen erlijioso batzuekiko harremana.



Uste dugu Islama mehatxua dela Mendebaldeko munduarentzat. Mendebaldea, maiz, mehatxua da Islamaren balore etiko eta moralentzat. Baina horrek ez du esan nahi musulman guztiak mendebaldeko gizarte ereduaren aurka daudenik.



Uste dugu musulmanen kulturak emakumeari tratu txarrak ematen dizkiola. Erlijio eta kultura gehienak ez dira gauza izan emakumeenganako diskriminazioa osotara kentzeko, ezta desberdintasuna ere emakumeen eta gizonen arteko harremanetan. Egia da herrialde islamdar batzuetan emakumeen eskubideak etengabe zapaltzen ari direla, baina beste batzuetan, esate baterako, Egipton, Libian, Libanon eta Iranen, emakumea benetan parte hartzen ari da bitzita politikoan, sozialean eta ekonomikoan. Islamdar askorentzat, Koranak ez dio inola ere emakumea diskriminatu behar denik, hori fede islamdarren interpretazio okerra da, itxuragabetua.



Pentsatzen dugu musulmanak Gerra Santuaren aldekoak direla. Gerra Santua edo Yihad kontzeptuari bere benetako esanahia aldatu diote, borroka armatuari lotu delako. Yihad-ak, ordea, esan nahi du ahalegindu behar dela musulman ona izaten eta fedea zabaltzen. Fedea zabaltzeko behar da konbentzimenduaren bitartez eta ez jendea behartuz.

Seguritatearen izenean, askatasun zibilak kolokan daude



Estatu Batuetan, askatasun zibilen defendatzaileak beldur dira terrorismoa menderatu nahi izatearen amorrua ez ote den aitzakia izanzen hiritarren eskubideak murrizteko. Izan ere, gobernuak emergentziazko neurriak hartu ditu jada, etorkinen eskubideak murriztuz eta seguritate indarrei ahalmen handiagoa emanez. Terrorismoari aurre egiteko Agiri berriak (2001) zabaldu egin du terroristaren definizioa. Horren arabera, terrorista da edozein antolamendu terroristari languntza materiala ematen dion pertsona oro, pertsona horrek ez jakinki ere languntza ematen ari denik. Urriaren 22an, FBIk 830 gizon-emakume atxilotu zituen, eta, gehienei leporatu zieten "lekuko materialak" izatea. Arrazoi hori dela medio, atxilotuak espetxean mugarik gabe preso eduki ditzakete, haien kontra frogarik eta kargu formalik ez izanik ere. Atxilotu gehienak arabiarak dira eta horietako batzuen delitu nagusia da haien abizena eta ustezko bahitzaileena antzekoa izatea. Beste batzuek auzolagun izatearen

edo meskita berean otoitz egitearen zoritxarra izan zuten.

Europako herrialde batzuetan ere, Holandan, Erresuma Batuan edo Espainian, abaguneaz baliatu dira kontrol soziala handitzeko. Mundu osoan, milioika lagunek eskatu dute terrorismoari aurre egitea justizian oinarriturik eta ez mendekuan. Horrek esan nahi du, ustezko erantzuleen aurkako frogak behar direla eta epaiketa egin behar dela berme guztiekin. Gaur egun, ez dago frogatua Bin Laden eta bere Al Qaeda mugimendua atentatuen erantzule bakarrak direnik edota Afganistan terrorista islamdarren babesleku nagusia denik. Nolanahi ere, kontrol soziala handitzeko gogo biziak arriskuan jarri ditu eskubide zibilen aldeko borroka luzearen lorpenak. Besteak beste, bestela pentsatzeko eskubidea, pentsatzen dena esateko eskubidea eta gauzak bake bidez aldatzen ahalegintzeko eskubidea.

Glosategia:

Zertaz mintzatzen ari gara honetaz mintzo garenean?

Askatasun zibilak: Estatuaren eskuartzea mugatzen dute eta babestu egiten dituzte pribatutzat jotzen diren bizitzaren alorrak.

Gizarte zibila: erakunde eta antolamenduetan antolatutako taldeak dira, estatuaren kontrolaren mendean ez daudenak. Funtsezko eginkizun eraginkorra dute sistema demokratiko guztietan.

Giza eskubideak: pertsona guztiok, gizakiak garenez gero, ditugun eskubideak dira, bizi garen herrialdean dauden legeak alde batera utzita: bizitzeko eskubidea, heziketarako eta osasunerako eskubidea, elikatzeko eskubidea, askatasunerako eskubidea, etab.

Terrorismoa: boterearen kontrako indarkeria antolatua, etengabea, helburu politiko zehatz batzuk lortzeko. Gobernu bakoitzak bere gisara definitu du terrorismoa. Horrela, Hegoafrikako "apartheid" erregimenak Nelson Mandela terroristatzat jotzen zuen, nahiz-eta borroka hura herria duintasunez bizitzeko eskubidearen aldekoa izan. Ez da ahaztu behar estatu terroristarik ere badela, estatu nazia, esate baterako.

Tolerantzia: inor ez diskriminatzeko borondatea bere sinismen erlijiosoarengatik edo bere iritzi politikoengatik. Tolerantziak esan nahi du, beste pertsonak direnarekin eta beren ekintzekin ados ez egon arren, errespetatu behar ditugula, ezberdinak izanik ere eta gauza ezberdinak eginik ere. Kultura aunitzeko Gizarteak aukera ematen du bakea mantentzeko, baina ez du berdintasuna bermatzen. Alde horretatik, José Saramago Nobel Sari portugaldarrak beste hitz bat eskaini digu: igualitancia.

Xenofobia: Atzerritarrenganako beldurra edo/eta gorrotoa.

Gida didaktikoa

Gida didaktikoa

Ondoan doan proposamenak bigarren hezkuntzako ikasleendako da. Jarduerak erabilgarriak izan daitezke etikaren gizarte alorrerako, tutoretzak edo erlijiorako. Eta erabilgarri ere izan daiteke gaiaz interesa duen edozein irakaslerentzat.

Proposamen honen helburua da aintzat hartzea eta jakitea gatazka armatu guztietan eragile eta jokalaria askok eta ezberdinek eskuartzen dutela, gisa horretan eragozteko gizarte komunikabide batzuek zabandu ohi duten manikeismo merkea.

EGILEA: FERRAN POLO

1. Jarduera:

Irudiak aztertzea

Helburua: Agertutako irudiek sorrarazi dituzten sentimenduak azalartzea eta agerian jartzea gizon-emakume zibilak direla gatazka armatuetan gehien sufritzen dutenak.

Orientabideak: 1. eta 2. argazkiek agertzen dute gizon-emakume zibilek jasaten dituztela gatazka armatuen ondorioak. 3. argazkian ageri dira uste dutenak gerrak ez duela inoiz ere arazo horiek konpontzen. Galderei erantzun baino lehen, gomendatzen da agertutako irudien azalpena egitea. Ondoren 4garren galdera eginen da eta erantzun beharko zaio egoera aztertu eta gero, ondoko jardueren bidez, betiere.

2. Jarduera:

Nori egiten dio mesede “terrorismoaren kontrako gerra” horrek?

Helburua: Afganistango egungo gatazkan eskuartzen ari diren hiru interesei (beste askoren artean: geostrategikoak, etnikoak...).

Orientabideak: Gomendatzen da informazioak denen artean iruzkintzea eta ondoren bakoitzak bere kasa erantzutea. Lehenbiziko jardueran (5) eta informazio testuak irakurritakoan, xedea da ikasleek identifikatu dezatela zer dagoen “zeta beltzaren bide berriaren” atzean. Filmaren kartela balia daiteke azaltzeko nola Estatu Batuek, Pakistanek eta Saudi Arabiak talibanak sustatu zituzten. Ageri den mapak balio du gatazka lekua kokatzeko eta, horrez gain, Turkmenistango gas-hodien irteerak ikusteko. Irteera horiek, Kaspiar Itsasora doan errusiarren bidearekiko edota Persiar Golkora doan irandarren bidearekiko alternatiboak dira.

Hurrengo jarduera (6) prentsako lerroburuen eta komiki baten irakurketan datza. Xedea da beste interes batzuk identifikatzea: armen salerosketa, arma-industriaren sustapena.... Hurrengo jardueraren (7) helburua da ikasleek, mapa bat erabilita, jakin dezatela herrialde askotan jardunean ari direla muturreko talde islamdar armatuak. Al Qaeda mugimenduak talibanena bezalako erregimenak ezarri nahi ditu herrialde horietan. Gobernuek oso gogor erantzun dute, erregimen haren aldeko manifestazioen kontra bortizkeria latza erabilita.

Oso egokia litzateke aipatzea herrialde islamdarretan oso gobernu molde ezberdinak daudela (laikoak, Koranaren legea konstituzioan bildua dutenak...) eta Korana oso modu ezberdinetan interpretatzen dela (sunitak, txiitak, wahabitak, sufiak...)

Elkarrizketaren irakurketan oinarriturik, xedea da ikasleek identifikatu ditzatela nortzuk diren krisi honetako onuradun batzuk: Al Qaeda mugimenduaren helburu politikoak eta estrategiak.

3. Jarduera:

Nortzuk dira “terrorismoaren kontrako gerra” horren galtzaileak?

Helburua: Aintzat hartzea eta jakitea gatazka armatuen ondorio latzenak gizon-emakume zibilek jasaten dituztela.

Orientabideak. Gomendatzen da mapak dakartzan kopuruak aztertzea, gizon-emakumeen drama agerian uzteko. Baina zenbaki hutsez haratago joan behar dugu, ahalegindu behar dugu irudikatzen eta aurkitzen ihes egin behar duten gizon-emakumeen sufrimendua.

Komikiaren bidez, berriz ere azpimarratu nahi da gizon-emakume zibilak direla gatazka armatuen ondorioz latzenak jasaten dituztenak.

Gatazkek nori egiten dion mesede aztertu ondoren, eta gatazkek gizon-emakumeak kaltetzen dituela aztertu eta gero, itzul gaitzke hasierako jardueraren 4. galderara: zure ustez, argazkian ageri diren pertsonak zergatik ari dira “gerrari Ez” esaten?

4. Jarduera:

Eta guk, zer egin dezakegu?

Helburua: Munduko gertakariak direla eta, ikasleen espiritu kritikoa sustatu nahi da, ez daitezela bazter gelditu. Indarkeriaren eta gerrako kulturaren aurkako jarrera kritikoa bultzatu nahi da.

Orientabideak: Lau gai proposatu dira eztabaidatzeko. Taldea edo gela lau taldetan bana daiteke eta gai guztiak eztabaidatu daitezke. Talde bakoitzak ondorioak horma-irudien bidez agertu eta azaldu beharko dizkiete gelakideei.

Liburu interesgarriak:

Liburu interesgarriak:

El grito silenciado

Ana Tortajada
Ed. Grijalbo Mondadori
2001
269 orrialde

Un invierno en Kandahar

Ana M^a Briongos
Ed. Laertes
2000
280 orrialde

Más allá del Islam

Antoni Segura
Alianza Editorial
2001
408 orrialde

Los talibán

Ahmed Rashid
Ed. Península
2001
384 orrialde

Web-guneak:

Web-guneak:

Afganistan eta egungo gatazkaren gainean (gazteleraz)

<http://www.onu.org/paises/afganistan.htm>
<http://www.guiadelmundo.org/gdm2001/cd/countries/afganistan/sinopsis.html>
<http://www.sigloxx.net/Afganistan/datosbasicos/afginicia.htm>
<http://es.fc.yahoo.com/a/afganistan.html>
<http://www.rebellion.org>

Beste web-gune interesgarri batzuk (gazteleraz):

<http://www.IntermonOxfam.org>
<http://www.ehu.es/hegoa>
<http://www.fuhem.es/cip/confli.html>

Beste web-gune interesgarri batzuk (ingeleraz)

<http://www.oxfam.org.uk>
<http://www.panos.org.uk>
<http://www.media-awareness.ca>
<http://www.childrennow.org>
<http://www.rawa.org>

Halaber, Global Express-en web-gunean sar zaitezke (ingeleraz)

<http://www.dep.org.uk/globalexpress>

sar zaitez gure web-gunean eta behera kargatu Global Express-a!
www.IntermonOxfam.org/educar/global

Global Express-ek galderak eragin eta sortu nahi ditu gure eskoletako ikasleen artean, komunikabideek esaten dutenaz. Errealitatearen ikuspegi kritikoa sustatu nahi dugu, ikasleek munduaren egoera, bereziki, garapen bidean dagoen munduaren egoera ulertzeko aukera izan dezaten.

Global Express, ondoko talde hauen ekimena da: Development Education Project (Erresuma Batua), Panos Institute (Erresuma Batua), Centrum VOOR Mondiaal Onderwijs (Holanda), Centro Educazione Mondialita (Italia) e Intermón Oxfam (Espainia).

Europako Batasunak diruz laguntzen du Global Express.